



BARREN  
TOKIKOM

# Musikarien ahalduntzea

Elur Arrieta



**2 logelako etxebizitzak 140.000 € -tik hasita**

**ATIKOA: SALDUTA**

**4. PISUA**  
2 logela - 2 bainu  
Hormitutako sukaldia  
**140.000 €**

**BEHE SOL**  
Txokoa  
Garajea  
**200.000 €**

**4. PISUA**  
3 logela - 88 m<sup>2</sup>  
Terraza 11 m<sup>2</sup>  
**205.000 €**

**AZKEN ATIKOA**  
4 logela - 3 bainu  
2 Terraza handi  
**250.000 €**

**BEHE SOL**  
Terraza 180 m<sup>2</sup>  
Garaje ibxi bikoitza  
**220.000 €**

**etxegain**  
BIZIGUNEA

**elgoibar**  
ARGITU ZURE IKUSPEGIA  
ETA ETOR ZAITEZ **etxegain**-ERA

- 2 ETA 3 LOGELAKO 25 ETXEBIZITZA
- IKUSPEGI ZABALAK DITUZTEN TERRAZAK
- TXOKOA DUTEN BEHEKO SOLAIRUAK GARAJEA SARRERAREKIN
- GARAJEA ETA TRASTELEKUA AUKERAN

WWW.ETXEGAIN.COM

**grupo eibar** inmobiliario  
E: comercial@grupoeibar.com  
San Francisco 32, bajo • 20870 Elgoibar

943 31 66 11  
689 66 08 01

OTRA FINANZIARIATZA  
**bankoa** Groupe Crédit Agricole

# Elgoibarko Izarraren TONBOLA

Aurreko urteetan TONBOLAK izan duen estimazioak bultzatuta, aurten ere **abenduaren 24an**, 11:00etatik aurrera, Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu Kalegoen plazan. Hasi gara opariak jasotzen! Eskerrik asko!


**Elgoibarko Izarraren aldeko TONBOLA**  
Abenduak 24,  
11:00etatik 14:00etara,  
Kalegoen plazan

**1.000 erregalu baino gehiago...**

... eta opari gehiago!

Harremanetarako: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) edo 943 744 112

JUAN LUIS MUGERTZA

Idazlea

## Emakumearen mundua



**G**izadiaren erdia baino gehiago emakumez dago osaturik, eta beste erdia, gizonez eraturakoa, emakume baten gorputzaren bidez etorri da mundura. Oraindik ez dute asmatu inolako makinarik hiru mila milioi emakumek burutzen duten lan eskergea egiteko. Hori dela-eta, antzinako kultur askotan ugalkortasuna mitifikatua egon zen, emakumezkoak baitira bizia emateko kapaz diren ba-

karrak. Halarik ere, gizonezkoek, jabetu zirenean ugalden prozesuan parte hartzen zutela, orduan erabaki zuten emakumearen gorputza kontrolatzea, seme-alaben jabetza ziurtatzea, eta, sarri askotan, emakumearen gorputza erabiltzea beraien nagusitasuna erakusteko. Gurean, ama izateak osasun arazo txikiak baldin badakartza ere, herrialde txiroetan, maiz, heriotza dakar. Leku askotan emakumeen bizi-itxaropenak ez ditu 45 urteen muga gainditzen. Nutrizio arazo handiak dituzte, eta umea izan eta ordu gutxitara, beraien komunitatera bueltatuko dira, plazenta eramango dute, eta etxe inguruko bazterren batean gordeko dute. Horrelako lekuetan, jaioberrien

heriotza-tasa, gainontzeko leku aurreratuetan baino ehuneko berrogeita hamar handiagoa da, baina inori ez dio axola, ondo bizi gara horretaz jabetzeko. Gainera, oraindik, kultura askotan jaiotakoa emakumea baldin bada, baztertu, eta behin baino gehiagotan, hil egiten dute, eskolara joateko aukera galtzen dute, ezer gutxi irabazten dute, eta ez dute jakingo 1960ko azaroaren 25ea eta Leonidas Trujilloren diktadurapean Dominikar Errepublikan hil zituzten Minerva, Maria Teresa eta Patria Mirabal ahizpen omenez azaroaren 25ez izaten den Emakumeen Aurkako Indarkeria ezabatzeko Nazioarteko Eguna ospatu egiten dela, baina horiek ere emakumearen mundua dira.

*“Gizonezkoek, jabetu zirenean ugalden prozesuan parte hartzen zutela, emakumearen gorputza kontrolatzea erabaki zuten, seme-alaben jabetza ziurtatzea”*



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA  
Euzko Legeburu Batzargainaren Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuiztak ataletan adierazita-koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edume Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR  
UDALA  
AJUNTAMIENTO

LAGUNTZAILEAK:

MENDARO  
1963

Gipuzkoako Foru Aldundia



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► SALBUESPEN ESPETXE POLITIKARIK EZ EUSKAL PRESOENTZAT

Hilaren 27an, Sebas Etxaniz preso elgoibartarrak 76 urte beteko ditu. Legeak berak aurreikusten duen moduan, 70 urtetik gorako presoak baldintzapeko askatasuna eskuratzeko eskubidea dute. Sebasek, gainera, 21 urte daromatza preso, eta zigorraren hiru-laurdenak beteak ditu. Hirugarren gradura pasatzeko eskubide legal osoa du, eta horrek bere egoera pertsonala hobetuko luke (asteburuetan etxera joateko eskubidea izango luke, espetxera lotara joango litzateke bakarrik...). Horrez gain, baldintzapeko askatasuna lortzeko aukera izango luke legez, hirugarren graduan egotea ezinbesteko baldintza baita baldintzapeko askatasuna lortzeko. Sebas bere ibilbide legal propioa egiten ari da espetxe barruan, askok urteetan eskatu izan duten moduan. Baina ezezko borobilak jasotzen ari da egindako eskaera guztiei. Sebas legea aplikatu dezaioten eskatzeko giza-kate ibiltaria egingo dugu hilaren 29an, ostirala, Kalegoen plazan hasi eta Maalako parkean bukatuko dena. 20:30ean argazki bat aterako dugu Maalan, gero Sebas bidaltzeko.

Preso adindunen gaiak gain, preso gaixo larrien arazoa da mingarriena suertatzen ari dena gaur egun. Deba bailaran badugu bat: Joseba Erostege Bideguren, *Eltzikorta*, Antzuolako preso. 22 urte daramazki preso. Koloneko askotariko polipoak kolektomiarekin, perineo aldeko askotariko polipoak eta kartzinoma berrukosoa ditu. Espetxe politikaren ohiko legediaren arabera, *Eltzikortak* bere gaitza etxean, baldintza duinetan, aukera guztiekin eta bere senide eta konfiantzazko medikuen babesarekin artatzeko eskubidea du. Baina Herrera de la Mantxan daukate, etxetik 650 ki-

lometrotara. *Eltzikortaren* askatasuna eskatzeko hainbat ekitaldi antolatuko dituzte Antzuolan. Tartean, azaroaren 30ean, larunbata, manifestazioa egingo dute, 18:30an hasita.

Dei berezia egiten dugu ekitaldi hauetan parte hartzera. Egoera larriak dira, eta berandu baino lehen, gure jarraera azaltzeko ordua dela uste dugu.

**Sare Elgoibar**

### ► URAZANDIRAKO ZUBIA

2019/05/20an, Elgoibarko Udalak hasierako onarpena eman zion Javier Regalado Herrero arkitektoak idatzitako Elgoibarko irisgarritasun plana eguneratzeko dokumentuari. Bertan, oinezkoei behar bezalako irisgarritasuna eragozten dizkieten askotariko egoerak agertzen dira. Hasierako onarpena eman ondoren, alegazioak aurkezteko epea ireki zen. Evaristo Rodriguez Elkarrekin Podemoseko gure zinegotziak, garai hartan udal kargurik gabeko elgoibartar bizilagun soil gisa, idatzi bat aurkeztu zuen kontuan hartu beharko liratekeen hainbat puntu zein hobekuntza jasotzen zituena.

Puntuetako batean, King-Kongeko eraikina eta Urazandi auzoa lotzen dituen zubiaren arazoa aipatu zuen:

*"1.- King Kong eraikinetik Urazandira doan pasabidearen zoladura, N634 errepidearen parean, labainkorrera eta arriskutsua da."*

Hala agertzen da lurraldeko batzordeak 2019/10/15ean egindako bilkuran. Batzorde horretan, Udalak honako erantzun hau eman zuen:

*"1.- 20/1997 Legeak ezartzen dituen irisgarritasun-betekizunen artean ez da jasotzen espaloietako zoladuraren irristakortasuna. Badira baldintza horiek ezartzen dituzten beste araudi batzuk. Beraz, Irisgarritasun Planaren dokumentuari ez dagozkio labainkortasun-bal-*

*dintza horiek aztertzea. "*

Beraz, ez dute beharrezkoa ikusten hori kontuan hartzea edo, behintzat, planteatutako arazoa aztertzea.

Hala ere, aste honetan jakin dugu azterlan bat egingo dutela egungo pasabidearen malda murrizteko, irisgarritasun legera egokitzeko eta autobus geltokirako sarbideak hobetzeko.

Pozten gara irisgarritasuna hobetuko duten neurriak martxan jartzeaz, baina aldi berean ulertzen dugu ezin direla mespretxatu gainerako alderdi politikoek edo pertsona norbanakoek egindako alegazioak. Kontraesan handia da alegazioen aurkako erantzunak ematea, Irisgarritasun Azterlan batean alegazio horiek ezin direla egin esanez, baina ondoren, alegazio horiek aprobetxatzea merezimenduak jartzeko, alegazio horietan salatutako arazoak konponduko dituztela esanez.

**Ahal Dugu-Podemos Elgoibar**

### ► OHARRA

Joan zen asteko *Emakumeak industriari* reportajearen jarri genuen Orbea enpresa 1858an sortu zutela, baina data hori ez da zuzena. Orbea enpresa 1840an sortu zuten. BARRENI okerreko datua eman zioten, eta erakusketako arduradunek eskatu digute data hori zuzentzeko.

**BARREN**



IV. URTEURRENA

## *Dolores Leyaristi San Martin*

2015eko azaroaren 23an hil zen, 92 urte zituela. Haren oroimenez IV.urteurreneko meza izango da, zapatuan, azaroaren 23an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.

***Beti egongo zara gure artean.***



XVI. URTEURRENA

## *Lorea Etxabe Azkue*

2003ko azaroaren 26an hil zen, 30 urte zituela.

***Edur zuritan hazittako  
lore gorrixa ziñan.  
Urtu eraitten zendun  
inguruko hotza,  
eta bedarra hazi erain.***

***Ez dogu gehixago  
zure berua igarriko,  
baiña hementxe gerauko da  
zure arnasia aztarnia,  
botatako sustraixen gaiñian.***

Zure familia eta lagunak



***Eskertzak eta urteurrenak 943 744 112***

## Ekitaldi askotarikoak izango dira Elgoibarren jubilatuen eta pentsiodunen astean

Astelehenean, azaroaren 25ean, hasiko dute Elgoibarren jubilatuen eta pentsiodunen astea izendatu dutena, eta abenduaren 1a artean hainbat ekintza izango dituzte aukeran. Jubilatuen Biltokiak osatu du egitaraua, Elgoibarko Udalaren Ongizate Sailarekin elkarlanean. Hasteko, astelehenean, Gabonetako otarren zozketa egingo dute, 18:00etan, Jubilatuen Biltokian. Asteartean, berriz, zine foruma izango dute, 17:30ean, biltokian bertan, eta eguaztenean, hilaren 27an, 80 urte beteta dituzten bazkideak eta aurten urrezko ezteiak ospatzen dituzten bikoteak bazkaritan elkartuko dira. 14:00etan izango da bazkaria, Jubilatuen Egoitzan. Eguenean, txokolatada egingo dute, 18:00etan, eta barikurako MUFOMI Fossil eta Mineralen Museora irteera antolatu dute (10:00). Artetxan dago museoa, eta museoaren arduradun Javier Vargasek emango dizkie han azalpenak. Zapaturako beste irteera interesgarri bat antolatu dute, Deba ibai ingurua ezagutzeko. *Karakate, itzaldutako sumendia* izena jarri diote eta 10:00etan jarri dute batzeko ordua, Andikanon. Ibilbidean zehar, Inma Mugerza geologoaren azalpenak jasoko dituzte. Abenduaren 1ean, berriz, meza izango dute parrokiaren, 11:30ean, hildako jubilatuen guztien omenez, eta arratsaldean, dantzaldia izango dute Jubilatuen Biltokian, Eguren orkestrarekin, 18:00etatik 21:00ak arte.

### Informazioa jasotzeko bide berria

Antolatzen dituzten ekintzen berri zabaltzeko bide berria jarri du martxan Jubilatuen Biltokiko zuzendaritzak. Hala, informazioa jaso nahi duten bazkideei 688 742 013 whatsapp telefono zenbakira mezu bat bidaltzeko eskatu diete. Mezuan, "ados" jarri eta bazkide-zenbakia bidaltzeko eskatu diete, gero beraiek propio honetarako bakarrik erabili ahal izango den difusio zerrenda osatu ahal izateko.

Santa Klara komentuan irudikatzen du zaharren egoitza berria Gaugerua-Duintasunak

Gaugerua-Duintasunak uste du Elgoibarrak aspalditik behar duela zaharren egoitza berria, eta uste du Santa Klara komentuan zaharren egoitza baterako behar diren baldintza guztiak betetzen dituela. Egungo zaharren egoitza txiki gelditu dela diote, eta datuak eman dituzte hori arrazoitzeko. Batek esan dute kopuruan gorabeherak egoten diren arren, gaur egun 13 pertsonakoa dela itxaron-zerrenda. 2013an, lau pertsonakoa zen itxaron-zerrenda, baina 25 pertsonakoa ere izan da. Bestetik, ohartarazi dute egoitzan dauden pertsona nagusien beharrak aldatu egin direla eta San Lazaro egoitza ez dagoela prestatuta horiei aurre egiteko. Langileak falta direla salatu dute, ekipamenduan eskasiak daudela, kokapena ere ez dela egokia eta pasiatzeko lekurik ere ez dutela adinekoek. Behar horiek aintzat hartuta, uste dute San Lazaro egokia izan daitekeela autonomia maila bat dutenentzat, baina mendekotasun handiagoa dutenentzat egoitza berria behar dela azpimarratu dute eta Santa Klara leku egokia dela horretarako.

## Euskal pentsioen sistema publikoa eta pentsiodun guztientzako 1.800 euroko pentsioa eskatu dute Eibarren



Zapatuko eguraldi makurrak ere ez zituen geldiarazi. Pentsio duinen alde borrokan jarraitzen dute jubilatuen eta pentsiodunen, eta zapatuan, manifestazioa egin zuten Eibarren Debabarrena eskualdekoek. Hauteskunde kampanian Pedro Sanchez Espainiako presidentek esan zuen 2020an pentsioak %0,9 igo nahi zirela, baina orduan ere argi erantzun zioten pentsiodunek: ez zutela 0,9ko igoera onartuko; KPI errealaren arabera igoerak bakarrik onartuko zituztela. Eta tinko eusten diote horri. Ez dute nahi pentsioen gaia aldiro gobernuen menpe uzterik, eta pentsiodun guztientzako hilean 1.800 euroko pentsioa eskatzen dute eta pentsioak KPI errealaren arabera berritzea.

## Astelehenerako, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunerako, elkarretaratzera deitu dute Elgoibarren

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna da azaroaren 25a, eta arazoaren larriaz ohartarazteko hainbat ekintza antolatu ditu Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailak, Haizea Emakume Taldea, Uluka Batuka, Gaztelekua, Emakumeen Kontseilua, Kirol Patronatua, Ongarri Zine Kluba eta Gotzon Garate Udal liburutegiarekin elkarlanean (Agendan daukaguzue egitarau osoa). Askotariko ekintzen artean, baina, elkarretaratzea ere egingo dute Elgoibarren, astelehenean bertan. Kalegoen plazan izango da, 19:30ean. Manifestu bat irakurriko dute



han, eta ondoren, Errosario kaletik Kalebarren plazara arteko bidea egingo dute, Uluka batukadakoekin. Han, indarkeria matxistak hildakoak zenbatzeko jarritako markagailuaren azpian, ekintza

sinboliko bat egingo dute hildako emakume guztiak oroitzeko, eta kandelak erabilia, zenbakia irudikatuko dute. Ondoren, batukadakoek beste pieza bat joko dute.

## Bacalaos Alcorta pintxo lehiaketako finalean parte hartu du Elgoibarko Viento Sur tabernak

Domekan jokatu zuten Bacalaos Alcorta Pintxo Lehiaketako finala, Eibarren, eta sukaldariek jendeaurrean prestatu zituzten lehiaketarako pintxoak, udaletxe barruko patioan. Iaz moduan, Viento Sur izan zen Elgoibarko ordezkaria. Hego-Talo izeneko pintxoarekin herriko kanporaketa irabazita sailkatu zen finalerako. Lehiaketa Eibarko Udalak, Bacalaos Alcorta enpresak eta Mireia Alonso Perez gastronomoak antolatzen dute elkarlanean, eta aurten, honako hauek sailkatu dira finalerako: Hondarribiko Gran Sol (Gipuzkoako txapelduna), Ermuko Kiska (Bizkaiko txapelduna), Gasteizko Waska jatetxea (Arabako txapelduna), Baserri Berri (Nafarroako txapelduna), Getari (Iparraldeko txapelduna), Irungo Danako (Euskal Herriko txapelduna), Viento Sur (Elgoibarko txapelduna), Giroa (Ermuko txapelduna) eta Baratze Gourmet (Eibarko txapelduna). Ramon Roteta, Belaustegi jatetxeko Josu Mugerza, Juan Carlos Ayerbe Goitia, Iñigo Kortabitarte, Mitxel Suarez Suso eta Mireia Alonso sukaldariek osatu zuten epaimahaia eta Gasteizko Waska jatetxekoek prestatutako pintxoak saritu zuten.

## Elikagai bilketa egingo dute gaur eta bihar Elgoibarren

Beste urte batez, elikagai bilketa egingo du Gipuzkoako Elikagaien Bankuak. Elgoibarren, gaur eta bihar egingo dute, 9:00etatik 21:30era, eta txandak betetzeko boluntarioak eskatu dituzte. Elgoibarko Udalak eta Gurutze Gorriak parte hartzera deitu dituzte herritarrak, eta boluntario lanean jardun nahi dutenei izena emateko eskatu diete. Izena emateko bi bide daude: Elgoibarko Udalaren Herritarren Arreta Zerbitzura (Santa Ana kalea, 2, behe) joatea edota 943 741 050 telefono zenbakira deitzea. Boluntarioak txaleko bereizgarriak jantzita egongo dira merkataritza-guneetako sarreretan eta sartzen diren guztiei bonu bat emango diete dohaintza egiteko, edo bestela, poltsa bat eskai-



niko diete, irteeran poltsa janariarekin beteta buelta dezaten. Sanlok ere bat egin du ekimen honekin, eta *jokalari bat, kilo bat* lelopean bilduko ditu elikagaiak asteburuan Olaizaga kiroldegian. Gaur, 17:00etatik 19:00etara; bihar, 10:00etatik 20:00etara eta domekan, 10:00etatik 12:00etara.



# Neguko oporraldirako eskaintza oparoa

Negurako eskaintza elkarlanean antolatu dute Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaika Sailak eta Ludoteka Udal zerbitzuak. Eskaintza oparoa antolatu dute Haur Hezkuntzako bigarren mailatik Lehen Hezkuntzako seigarren mailara artekoentzat, eta izena emateko epea zabalik dago astelehenaz geroztik. Abenduaren 1a izango da azken eguna.

- AINARA ARGOITIA -



lazko negulekuetako argazkia.

Haur Hezkuntzako bigarren mailatik hasita Lehen Hezkuntzako seigarren mailara arteko umeentzako eskaintza prestatu du Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika Sailak, Udalarekin lankidetzan. Ekintzetan parte hartu nahi dutenek izena eman behar dute, eta antolatzaileek ohartarazi dute plazak mugatuak direla eta interesa izanez gero lehenbailehen ematea komeni dela. Bi bide daude izena emateko: aurrez aurre, Elgoibarko Izarraren bulegoan edota ludotekan, eta on-line, [www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus) webgunean sartuta. Izena emateko epea astelehenaz zabaldu zuten eta abenduaren 1a arte izango dute zabalik. Ekintza batzuk debalde dira, eta besteek prezioa dute, baina Udaletik jakinarazi dute diru-laguntzak emango dituztela. DSBE eta GLL laguntza jasotzen duten familiek kuotaren %70eko diru-laguntza jasoko dute; familia ugariak eta guraso bakarreko familiek, berriz seme-alaba bakoitzeko kuotaren %30eko diru-laguntza izango dute, eta bigarren seme-alaben izen-ematea egiten dutenek bigarren horren kutoaren %30eko diru-laguntza izango dute. Diru-laguntzetarako eskaerak, baina, abenduaren 4a baino lehen egin beharko dira [www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus) webgunean edota Udalaren Herritarren Arreta Zerbitzuan.

## 'SOTOK' (0-6 URTE)

Txikientzako eskaintza da *Sotok*. 0 eta 3 urte bitartekoentzako eskaintza hiru egunetan eskainiko dute: abenduaren 26 eta 27an eta urtarrilaren 2an, Kultur Etxeko Sotoan, 17:30etik 20:00ak bitartean. Haurrek heldu batek lagunduta joan beharko dute. 4 eta 6 urte artekoak, berriz, abenduaren 30ean eta urtarrilaren 3an bilduko dira, Sotoan, aurrekoen ordutegi berean, baina hauek heldurik gabe joan beharko dute. *Sotok* eskaintzaren barruan, *Cake pop* tailerra antolatu dute abenduaren 23rako HH5 eta LH1 arteko neska-mutilentzat. Ekintza honetarako plazak mugatuak dira, eta izena eman behar da. Tailerra doan da eta haurrentzat bakarrik.

## 'SOTOKO TXOKOAK' (HH2)

Haur Hezkuntzako bigarren mailakoentzako eskaintza da. Bi txanda izango dira aukeran. Lehenengo txandako egunak honako hauek izango dira: abenduaren 23, 26 eta 27. Txanda honetan izena eman nahi duenak 39 euro ordaindu behar ditu (Elgoibarko Izarrako bazkideek, 35 euro). Bigarren txanda abenduaren 30, 31 eta urtarrilaren 2 eta 3 egunetarakoa da. Txanda honetan



izena eman nahi duenak 52 euro ordaindu behar ditu (bazkideek, 47). Baina badago, jakina, bi txandetarako izena ematerik ere. Kasu horretan 82 euro ordaindu behar dira (bazkideek, 74 euro). *Sotoko Txokoak* egitasmoan malgua da ordutegia. 9:00etatik 10:00ak arteko tartean utzi daitezke umeak, eta jaso, berriz, 12:00etatik 13:00etara. Plazak mugatuak dira.

### 'TXOKOAK' (HH3-LH3)

Haur Hezkuntzako hirugarren mailatik hasi eta Lehen Hezkuntzako hirugarren mailara artekoentzako eskaintza da, eta *Sotoko Txokoak* egitasmoan bezala bi txanda daude aukeran: Abenduaren 23, 26 eta 27ra mugatzen dena, edota abenduaren 30a eta 31 eta urtarrilaren 2a eta 3a hartzen dituen. Lehenengo txandan izena emateko 39 euro ordaindu behar dira (bazkideek, 35 euro), eta bigarren txandagatik, 52 euro (bazkideek, 47 euro). Hala ere, bi txandetan izena emateko aukera ere badago, 82 eurogatik (bazkideek, 74).

### 'ABIXADAN' (LH2-LH3)

*Abixadan* egitasmoaren barruan LH2 eta LH3ko neska-mutilek Iruñera irteera egingo dute abenduaren 23an, Saltingera. Irteera honek 20 euro balio ditu (bazkideentzat, 18 euro). Aben-

duaren 30erako, beste ekintza bat antolatzekoa dute, baina abenduaren 4an, 18:00etan, Ludotekan egingo duten Berbaldian adostuko dute gatzetxoek eurek. *Abixadanen*, plazak mugatuak dira.

### 'ALDENIK ALDEN' (LH4-LH6)

Nagusienek *Aldenik Aldeneko* eskaintza zabalaz gozatu ahal izango dute. Batetik, abenduaren 23rako, irteera antolatu dute Bilbora, *scape room* batera eta *karts*-etan ibiltzera. Irteera honetarako 20 euro ordaindu behar dira (Bazkideek, 18). Abenduaren 27an, berriz, kotiloirako prestatzen hasiko dira gazteak. Ludotekan izango da saio hori, 17:00etatik 19:00etara. Abenduaren 30ean egingo dute kotiloia, Ludotekan, 18:00etatik 20:00etara. Bi saiook debalde izango dira. Urtarrilak 2 eta 3rako, berriz, serigrafia tailerra antolatu dute Lehen Hezkuntzako seigarren mailakoentzat. Egur Arte Tailerrean izango da saioa eta 10 euro ordaindu beharko dira (bazkideek, 8). Urtarrilaren 2ko saioa 10:00etan hasi eta 12:00etan bukatuko da, eta urtarrilaren 3koa, hiru ordukoa izango da, 10:00etatik 13:00etara. Bukatzeko, eta azarora etorrira, Aldenik Aldenekoek berbaldia egingo dute, gaur zortzi, hilaren 29an, Ludotekan (18:00etan).

ATXUTXIAMAIKAREN ETA LUDOTEKAREN

# @ Neguko oporraldiak

**SOTOTK**  
0-6 URTE

**SOTO-TXOKOAK**  
HH2

**TXOKOAK**  
HH3-LH1

**ABIXADAN**  
LH2-LH3

**ALDENIK ALDEN**  
LH4-LH6

## Izen ematea

**AZAROAK 25 - ABENDUAK 1**

- [www.elgoibar.com](http://www.elgoibar.com)
- Elgoibarko Izarraren bulegoan
- Ludotekan

**plaza mugatuak**

## Udalaren dirulaguntzak

Eskaerak **abenduaren 4a baino lehen** egin beharko dira, [www.elgoibar.com](http://www.elgoibar.com) -en edo H.A.Z.en (Udalaren Herritarren Arreta Zerbitzuan);

- DSBE eta GLL laguntza jasotzen duten familiek kuotaren %70eko dirulaguntza jaso dezakete.
- Familia ugariak eta guraso bakarreko familiek, seme-alaba bakoitzeko kuotaren %50eko dirulaguntza jaso dezakete.
- Bigarren seme-alaben izen ematea egiten dutenek, bigarren honen kuotaren %50eko dirulaguntza jaso dezakete.



**Zehar**  
Maitata eta Programak



## ▶ ELUR ARRIETA

MUSIKARIA



# “Santa Zezilia eguna erreibindikaziorako erabiliko nuke”

Musikaria da, eta musikatik bizi da Elur Arrieta (Elgoibar, 1983). Gaurkoan, baina, bere musikari ibilbideaz baino gehiago abiatu berri duen proiektu berri bati buruz hitz egiteko bildu gara bera-rekin: ‘Músicos al poder’ bloga. Musikarientzako bloga da, baina ez du musikaz hitz egiten. ‘Mindfulness’ jarreraren oinarrituta, musikariei eguneroko bizimoduan dituzten zailtasunak gainditzen laguntzeko erremintak ematea da blogaren helburu nagusia. Artisten munduak islatzen duen zorientasunaren atzean ezkutatzen diren une ilun eta gogorrei aurre egiteko beharrak eraman du proiektu hau martxan jartzera, bere egoera berbera bizi izan duten musikariei lagundu nahiak. Iazko irailean hasi zen bloga gorpuzten, eta maiatzean egin zuen publiko. Lanez gainezka, baina ilusioz dihardu proiektu berrian.

- AINHOA ANDONEGI -

### ♦ ‘Músicos al poder’ bloga jarri duzu martxan. Zertan datza?

Behar pertsonal batetik abiatuta sortu genuen proiektu hau. Nire ofizioarekin eta egiten ditudan lanekin gehiago gozatzeko beharra sentitzen nuen. Ikusten nuen musikatik bizitzea lortu nuela eta nahiko modu duinean gainera, baina sentitzen nuen hainbat lanekin ez nuela gozatzen. Horrek barruan egoezin moduko bat sortzen zidan, musikarion helburuetako bat delako ikusleari edo entzuleari gozaraztea, eta zaila da hori lortzea, norberak ez badu egiten duen horrekin gozatzen. Etika eta moral aldetik txoke pertsonal handia sentitzen nuen. Egoera horri buelta eman nahi nion, eta ahalegin horretan nenbilela *mindfulness*-a deskubritu nuen. Anaiak eman zidan honen berri, hainbat liburu utzi zizkidan irakurtzeko eta, berehala hasi nintzen aldaketak esperimendatzen. Hori kontatzeko beharra sentitu nuen, eta instruktore izateko prestatu nintzen.

### ♦ *Mindfulness*ean oinarritu duzu bloga. Zer eman dizu *mindfulness*ak?

*Mindfulness*a jarrera bat da, eta jarrera horri esker norberak erabakitzen du kontzienteki arreta ekartzea orainera, errealitateko momentu hori den bezala onartuz eta norbera goxotasunez tratatuz. Bizitzarekiko jarrera bat da, eta mezu oso sakonak ematen ditu: zaren bezala onartzea, goxotasunez tratatzea zure burua... Musikari baten bizimoduari laguntzeko aplikazio potentea eta zuzena iruditu zitzaidan.

### ◆ **Nolakoa da musikari baten bizitza?**

Musikariok daukagun formazioa oso indibiduala da, eta hortik abiatuta, gure etorkizuna oso indibidualizatuta dago. Horrek ekar dezake tendentzia arriskutsu bat: egiten duzuna zuzentzat bakarrik egitea, eta horrek sufrimendua ekar dezake, inguru guztia oso modu konpetitiboan ikusten duzulako. Eta bakoitza bere interes pertsonalengatik ari denean, elkarbizitza arazoak sor daitezke. Gure bizimoduan bakardade momentu asko ere badaude, eta bakardade egoera horretatik bat-batean pasa zaitezke ageri-agerian egotera publikoaren aurrean, tribunal baten aurrean edota grabazio batean. Kontraste handiko egoerak sortzen zaizkigu, estres egoera larriekin. Eta ez badaukazu horrelako egoerei aurre egiteko erremintarik, arazo patologikoak sor daitezke, depresioa esaterako. Eta horrek ekar dezake lanbidea abandonatzea; hainbeste urtez borrokatu ostean, dena bertan behera uztea. Musikarion beste oztopo bat agenda da. Gure agenda eta ingurukoena oso desberdina da, eta horrek lagunekin edo familiarekin kontziliatzea zailtzen du. Nik, lehen, oso gaizki eramaten nuen hori, baina orain ikasi dut astean zehar ditudan momentu libreei alde onak ikusten.

### ◆ **Zer eskaintzen diezu blogean musikariei?**

Nire egoera berean dauden musikariei laguntzeko sortu nuen bloga. Nik bizi izan dudana kontatu, eta horrekin, besteei beraien egoera hobetzeko erremintak eskaintzea da helburua. Tarteka gai pragmatikoagoak ere lantzen ditugu; adibidez, alderdi fiskal eta juridikoari buruz ere hitz egiten dugu. Gai hau ere oso ezezaguna da guretzat, eta gure ibilbidea baldintzatu dezake goitik behera. Gaizki kudeatzen baduzu zure fakturazioa edo gaizki aukeratzen baduzu dagokizun egitura juridikoa, izan dezakezu munduko idearik onena, baina galduta zaude.

### ◆ **Musikarientzako bloga sortu duzu, baina ez duzu musikaz hitz egiten.**

Hala da, eta nahita hartutako erabakia izan da. Normalean musikariei egiten zaizkien elkarrizketetan beti beraien proiektuei buruz hitz egiten da, baina ez horrenbeste sentimenduetaz. Ez da inoiz hitz egiten bidean izan dituzten zailtasunei buruz, edo zer sentitzen duten eszenatokira irten behar direnean, nola gaintzen dituzten arazoak, non bilatzen duten inspirazioa... Nik horrelakoak irakurtzeko beharra sentitzen nuen, zergatik iritsi den musikari hori iritsi den lekura, nola, zer bizi izan duen ibilbide horretan... Askotan gai tabuak dira eta gutxi hitz egiten da daukagun zailtasunei buruz. Arazo horiek plazaratzen badituzu, ahultzat har zaitzakete, eta horrek jendea atzerakada ematen dio; horregatik jendeak alde hori ez-

kutatu egiten du, eta musikaren alderdi idealaz bakarrik hitz egiten du. Nire ustez, oso garrantzitsua da norberaren sentimenduak libre adieraztea, eta ez egotea, ahultasunak ezkutatzuz, uneoro besteen oniritzia bilatzen. Jendearekin enpatizatzeke modurik onena, norbera den bezala agertzea da.

### ◆ **Sare sozialak asko erabiltzen dituzu blogaren berri emateko. Sare sozialak ez al dira bihurtu hain zuzen ere alde iluna ezkutatu eta jende guztia zein ondo dagoen erakusteko plataforma?**

Bai, hala da. Sare sozialetan jarraitzaile bila aritzen gara denok, eta hori lortzeko norberaren perfil onena erakusteko tentazioan jausten gara askotan. Dena dela, *Músicos al poder* blogean saiatzen gara garen bezala agertzen.

### ◆ **Nolako harrera izan du blogak?**

Ez da denbora asko martxan jarri gurela eta oraindik agian goizegi izan daiteke balorazioak egiteko, baina nik esango nuke harrera ona izan duela. Orain hasi gara jendearen feedback-a jasotzen, eta iruditzen zait jendea identifikatuta sentitzen dela hor publikatzen ditugun gauza askorekin. Ez dakit motel goazen edo agian azkarregi, ez daukadalako beste erreferentziarik. Nik ez daukat prisarik, proiektu sendo bat izatea nahi dut eta pausoak sendo ematen saiatuko naiz.

### ◆ **Blogean jartzen duzu amestutako bizitza bizitzen ari zarela.**

Hitz potoloak dira, baina egia da. Nik musikari izan nahi nuen, musikatik bizitzea nahi nuen, hori zen nire ametsa eta esan dezaket lortu dudala. Musikariok askotan besteen bizimodua mitifikatzen dugu, erreferente batzuk hartzen ditugu eta hori arriskutsua izan daiteke, gertatu daitekeelako beste baten bidea aukeratzea eta ez zurea. Norberaren bidea sortu beharrean, badaukagu joera erreferente horien bidea aukeratzeko. Blog honi esker niretzako erreferente izan diren musikari askorekin jarri naiz harremanetan, batzuk ezagunak nituen, baina beste asko ez, eta haien esperientziak jasotzea oso interesgarria egiten ari zait.

### ◆ **Musikatik bizi zara, eta esan duzunez, modu duin batean. Askok ezin dute horrelakorik esan.**

Bai, agian duintasun maila oso apala edukiko dut, baina niretzako une honetan duintasunez bizitzea da egindako lan guztiak Gizarte Segurantzaren babesean egitea, musika eginez edo musika irakatsiz bizitzea, eta hilabete amaierara iristea. Gehiago irabaziko banu, hobeto, jakina, baina momentuz, egiten dudanak bizitzeko ematen dit. Musika munduan lan pila bat egiten dira prekarioan, oso gutxi edo ezer kobratu gabe, eta nire blogean errealitate horren berri ere eman nahi dut. Sentsazioa daukat gizarteak ikusten gaituela

*“Nik musikari  
izan nahi nuen;  
hori zen nire ametsa  
eta esan dezaket  
lortu dudala”*

zorioneko moduan, gure pasiotik bizi garelako, eta ematen duelako egiten dugun guztiarekin gozaten dugula. Baina kasu askotan, ez da horrela. Ausartuko nintzateke esatera gaur egun gizartea dagoen moduan egonda, musikari izatea meritua dela. Gauzak hobetzen ari dira, baina oraindik asko dago hobetzeko musikarion lan-baldintzetan. Adibide bat jartzearen, orain dela bost bat urtera arte ez zen onartzen musikariok gaixotasun laboral bat izan ahal genuela. Gure lanak giharretako gaitz handiak sortzen ditu instrumentuak jotzeko erabiltzen ditugun posturen eraginez, eta hori orain dela gutxira arte ohiko gaixotasuna zen, eta ez zen lan gaixotasun moduan onartzen. Zorionez, hasi dira gauzak aldatzen, baina oraindik badago lana. Adibidez, autonomo izateko ere zailtasunak ditugu, hilero ordaindu beharreko kuota garestiegia delako. Guk hilabete batzuetan ez ditugu kontzertuak ematen eta ez dugu kuota hori ordaintzeko adina fakturatzen. Guk eskatzen dugu kuota minimo sinboliko bat jartzea, eta beste protzentaje bat zehaztea fakturazioaren arabera ordaintzeko. Lan-baldintzak eta musikarion baldintzak asko hobetuko lirateke autonomo izango bagina.

◆ **Musikari batek baino gehiagok esan izan du kontzertu bat emateko ordaintzeko ere prest egongo litzatekeela.**

Bai, musikari askok zaletasun moduan daukate musika. Hau da, lanbide bat dute, eta tarteka, kontzertuak ematen dituzte. Baina gaurko musika merkatuan edonork izan dezake aukera bere ibilbide artistikoa profesionalizatzeko, Interneti esker, adibidez. Beraz, gutxieneko baldintza batzuk ezarri beharko genituzke denon baldintzak hobetzeko.

◆ **Musikaria zara eta musikaz bizi zara, baina zein da zure lana zehazki?**

Astean hiru egunetan perkusio eskolak ematen ditut Leioako kontserbatorioan. Horrez gain, *freelance* moduan orkestra sinfonikoekin eta beste talde profesional batzuekin kolaboratzen dut, eta azkenik, nire bikotekidearekin batera Musbika ize-neko musika proiektua daukagu. Une honetan Musbikarekin bi proiektu ditugu eskuartean: *Itsasoen deia darra* da bat, eta musika antzerkia eta zientzia uztartzen ditu, eta helburua da ikusleak sentsibilizatzea plastikoaren kutsadura gutxitzera. Beste proiektua Antonio Gaztañeta Mutrikuko marinelen bi-daiari buruzkoa da. Barroko garaiko pertsonaia da, eta bere garaian pertsonaia garrantzitsua izan zen. Berak eginiko bi-daia baliatzen dugu munduko hainbat lekutako barroko garaiko musika egiteko. Euskal Herrian hasita, Europan zehar ibiltzen gara ondoren, eta Antonio berarekin Ameriketara joaten gara, eta gero, buelta. Proiektu hauek saldu nahian gaitza orain.

“Goi mailako ikasketak egitea gaur egun ez da eskubide bat, pribilejio bat da”

◆ **Euskalduna zara, baina aldiz, blogean gaztelaniaz idazten duzu. Zergatik?**

Aitortzen dut euskaraz askoz erosoago sentitzen naizela; euskaraz pentsatzen dut, euskara da nire etxeko hizkuntza, eta euskara maite dut, eta gai honek sortu zidan egonezina. Baina musikariren kolektibo txikia da, eta hizkuntzaren muga gehituta, are eta txikiagoa bihurtzen da. Nire helburua musikariren bizi-kalitatea hobetzea da, eta horretarako, nire mezua ahalik eta jende gehienarengana heldu behar da.

◆ **Noiz eta nola erabaki zenuen musikari izan nahi zenuela?**

Une honetara iritsita, hezkuntza arautuaren gainean hauxe aipatu nahiko nuke: badirudi 15 urtera arte ez daukazula ezer erabaki beharrik, eta bat-batean erabaki behar duzu etorkizunearn zer izan nahi duzun, ia inoren laguntzarik gabe, jakin gabe zertan zaren ona, zer dohain dituzun... Denok hezkuntza berbera jasotzen dugu, denok desberdinak izanda, eta hortan artistak galtzeko asko ditugu, hezkuntza arautuan gai artistikoak oso azaletik lantzen direlako. Gaur egun hori aldatzen ari da, eta artistentzat aukera zabalagoa dago Batxilergoan, eta hori positiboa da. Baina, hala ere, sekulako ahalegina egin behar izaten dugu hezkuntza akademikoa eta formazio artistikoa uztartzeko. Motibazioa eta pasioa ezinbestekoa da. Ni Erretereriako kontserbatoriora joaten nintzen 15 urterekin musika ikastera. Gero, Lanbide Heziketan sartu nintzen informatika ziklo bat egitera, bestela etorkizunearako atea ixiki nituela pentsatuta, baina 18 urte nituenean, argi ikusi nuen musikari izan nahi nuela: Euskadiko Gazte Orkestran nengoen, eta han bizi nuenarekin gurasoei esan nien informatika utzi eta musikaren bidetik joko nuela. Goi mailako musika ikasketak egiteko prestatzen hasi nintzen, eta Musikenen sartzea lortu nuen. Gaur egun goi mailako musika ikasketak egitea ez da eskubide bat; pribilejio bat da. Horrelako proben aurrean etortzen dira bakardade eta kompetentzia egoerak, eta inguruan ez badaukazu babesik oso erraza da zulora erortzea. Nik zorionez gurasoen babesa izan dut beti, eta banekien huts egiten banuen etxeko atea beti zabalik izango nituela. Ikaskide batzuk nire inbidia handia sentitzen zuten, ekitaldi guzti-guztietan nire gurasoak han egoten zirelako. Momentu zailetan gurasoen presentzia hori ezinbestekoa da.

◆ **Santa Zezilia Eguna da gaur, musikariren eguna. Badukazu ospatzeko ohiturarik?**

Azken urteetan lanean pasatu izan dut Santa Zezilia eguna, eta orain momentuan ospatzeko baino gehiago erreibindikaziorako erabiliko nuke egun hau. Emakumeek martxoaren 8an egiten duten bezala, musikariok azaroaren 22an. Nahi duenak ospatu dezala, jakina, baina modu kolektiboan gure aldarrikapenak egiteko egun aproposa izan daiteke.



## Jon Astigarraga izan da azkarrena euritan jokatu duten Idotorbeko igoeran

Julian San Juanen Oroimenezko San Pedroko igoeraren 28. ekitaldia berezia izan da aurten, urriaren 12an beharrean azaroaren 17an jokatu zutelako. Ohi baino txirindulari gutxiagok hartu zuten parte, denboraldia amaituzat emana baitute txirinduzale askok, eta azken asteetako euriteek ere ez dute errepidera irteteko aukera larregi eman. Jon Astigarragak (Eibar, 1999) ere hilabete baino gehiago zerraman bizikletan ibili gabe, eta korrika egiteari emana zegoen azken asteetan (Behobia-Donostia korritu zuen aurreko asteburuan ordubete eta 19 minutuan osatu zuen). Antxitikako zapatilak albo batera laga eta berriro ere bizikleta hartu zuen Idotorbeko igoeran parte hartzeko, eta bera izan zen parte hartu zuten hamasei lagunetan azkarrena. Astigarraga Jon Ibarluzearekin eta Ibai Konderekin batera ailegatu zen azken metroetara eta Ibarluzearekin esprint estua jokatu ostean, berak gurutzatu zuen aurreko postuan helmugako marra. 15 minutu eta 18 segundoan osatu zuen igoera. Lau segundora iritsi zen Ibarluzea eta hamahiru segundora Konde. Aipamen berezia merezi du Master 50 mailan lehen postua lortu zuen Iñigo Ortuostek, aurreko egunean Karakateko Igoera ere jokatu zuelako.



## Uztargi Xake Azkarreko txapelketa antolatu dute Mendaron eta zabalik dago izena emateko epea

Kilimon Xake Taldeak antolatu du Uztargi Xake Azkarreko txapelketa, Uztargi tabernaren babesarekin, eta zabaldu dute izena emateko epea. Azaroaren 25ean hasiko da txapelketa. Bi kategoria izango dira: 2008. urtea ondoren jaioakoenata bata, eta 2008. urtea baino lehen jaioakoenata, bestea. Parte hartzeko 653 715 375 whatsapp zenbakira idatzi behar da, edota xakemendaro@gmail.com posta elektronikora. Partidak hogeita bost minutukoak izango dira, eta txapelketa bera azaroaren 25ean hasiko da.



## Javier Goitia eta Sonia Lopez gailendu dira azken urteotako Karakateko igoera gogorrenetarikoan

H otzari -1,5 gradu markatzen zuen termometroak Karakateko tontorrean, haizeari, etenik gabe bota zuen euriari eta elur bustiari aurre eginez, 56 lagunek hartu zuten parte 26. Karakateko igoeran. Baldintza gogorretan jokatu zen arren, bi lagun bakarrik erretiratu ziren, eta Karakate gainean batu ziren zaleak ere ez ziren gutxi izan. Javier Goitia gernikarra izan zen azkarrena gizonetzkoetan. Estreinakoz hartu zuen parte eta 30 minutu eta lau segundoan osatu zuen igoera. Goizean esnatu eta zegoen eguraldia ikusi zuenean parte hartu ala ez zalantzan egon zela aitortu zuen. Karakate gainera ailegatzeko bidea "gutxi gorabehera" ezagutzen zuela esan zuen, baina ez zuela proba irabazterik espero, inondik inora. "Beti esan didate oso lasterketa polita dela, ikusle asko batzen dituela, eta halaxe izan da. Kanpaiak jo dutenean frontisetik irten eta plazan jendea zegoen. Gora ailegatu eta elurra ari zuela horrenbeste ikuslerekin topo egitea oso polita izan da, errepikatzeko gogoz laga nau", adierazi zuen eguraldi makurratik Kalegoen plazan egin behar izan zuten sari banaketa ekitaldian. Goitiak 34 segunduko aldea atera zion helmugan Pello Osoro eibartarrari. Emakumezkoetan ere Bizkaia aldera joan zen garaipena, Sonia Lopez ermuarra gailendu zelako, 38:38ko denbora eginda. Ioritz Conde eta Naomi Revert izan ziren lehen elgoibartarrak, eta Aurpegi Onenaren Saria losu Idakezi eman zion Morkaikok. Mausitxako gazta bat jaso zuten guztiek saritzat.



## Lizarralde eta Arrizabalaga finalera

Kepa Arrizabalagak eta Gorka Lizarralde paleta gomako Gipuzkoako lehen mailako finala jokatu dute domekan, Donostiako Altza frontoian, 11:00etatik aurrera. Lagunak pilota eskolako bikoteak Danok Bat taldeko bikotea kanporatu zuen finalurrekoetan. Ikastolako frontoian jokatu zuten itzulerako partida, joan den barikuan, eta 21 tantoan laga behar zituzten Elezgarai eta Garalde, eta 25-16 irabazi zuten elgoibartarrek. Hala, finala jokatzeko sailkatu ziren Arrizabalaga eta Lizarralde. Finalean Real Sociedad taldeko bikotea, Antxordoki eta Martikorena izango dute aurkari.

## Xabier Loiolak irabazi du Euskal Herriko Hiru Txirlo bola joko txapelketa



Markina Xemeingo Uhagon bolatokia jokatu zuten, azaroaren 16an, Euskal Herriko Hiru Txirlo bola joko txapelketako laugarren eta azken jaurtialdia. Saikapen nagusiko lider ailegatu zen Xabier Loiola bolari elgoibartarra, eta ez zuen lehen postuari eusteko arazorik izan. 69 bolarik hartu zuten parte azken tiraldian, eta lastur taldeko Joseba Lazkano itziartarra gailendu zen, zazpi txirlo botata. Sei txirlo botata laugarren postuan sailkatu zen Xabier Loiola. Honenbestez, jokaturako lau jardunalditatik bi irabazi eta denera 23 txirlo botata, Xabier Loiolak merezimendu osoz jantzi du irabazlearen txapela. Zazpi txirloko alde atera dio bigarren sailkatuari, Lander Odiaga markinarrari. Loiolarentzat Euskal Herriko txapelketa irabazi duen hirugarren aldia da. Bere lehengusua den Angel Ibarluzeak eskuratu zuen titulu hau iaz. Hain zuzen ere, bi lehengusuk gailendu dira bikotekako saikapenean ere, bederatzigarren aldiz, eta baita San Migel A taldeko kide gisa ere, taldekako saikapenean 24 txirloko alde atera baitio San Migel A taldeak bigarren egin duen Eibarko Asola Berriri.

## Everest Trail Race lasterketako kronikak 'barren.eus'-en



Sei etapatan 170 kilometroko mendi lasterketa osatu du Ainhoa Lendinezek Nepalen: Everest Trail Race. Emakumezkoetan Anna Comet kataluniarra izan zen azkarrena, 26 ordu, 20 minutu eta 56 segundoko denbora eginda. Lendinez laugarren postuan sailkatu zen, irabazlearengandik 7 ordu eta 43 minutura. Lasterketa bat baino gehiago izan da, baina Lendinezentzat munduko mendi garaienak dauden lekuan jokatu duten proba. Etapa guztietako kronikak eta irudiak *barren.eus* webgununeko Komunitatea atalean irakurri eta ikus ditzakezue.

## Bizipen gazi-gozoek Espainiako dardo txapelketan



Elgoibarko Derry Darts taldeak makina elektronikoen modalitateko Phoenix Darts Espainiako dardo txapelketan hartu zuen parte, azaroaren 14tik 16ra bitartean, Coruña. Bizipen gazi-gozoekin itzuli dira Galzitatik, emaitza hobekak lor zitzaketela uste duten arren, 3.000 partaide izan dituen txapelketan lehiatzea esperientzia aparta izan dela-eta. Expocoruña aretoan ipini zituzten 180 dardo makinatan lehiatu ziren parte hartzaileak, banaka, bikoteka edo taldeka. "Banakako lehiak ez genuen emaitza aipagarriarik lortu, eta bikotekakoan 24. postuan sailkatu ginen Gorka Panizo eta neu. Gure kategorian 128 bikote lehiatu ginen", azaldu du Roberto Sanchez taldekideak. Taldekakoan bigarren txandan kanporatu zituzten. "Ez genuen gure maila eman eta saikapen hobea lortzeko aukera gurela uste dugu, baina ez dauka atzera bueltarik. Hori bai, esperientzia aparta izan da eta ederki pasatu dugu elkarrekin. Mila esker babesa eman diguzuen guztioi; eta, bereziki Derry tabernari, Tereri eta Patricki, eman diguzuen laguntza guztiatik", esan du Sanchezek.

## Tokikom sarietan finalista izan da 'BARREN' Azalik Onenaren kategorian, baina Debagoieneko 'Puntua' aldizkariak eraman du saria

Tokikom Sariak banatu zituen joan zen barikuan Tokikom Toki Komunikabideen Bateraguneak, Basaurin. BARREN aldizkariaren azal bat zen Azalik Onenaren Saria eskuratzeko hiru finalistetako bat, baina Debagoieneko *Puntua* aldizkariak jaso zuen saria, Antropozenoa azalagatik. Azalaren diseinu minimalista eta arriskatua nabarmendu zituen epaimahaiak: "Oso elementu sinple gutxirekin mezu hunkigarria ematen du". Goierna Telebista eta Urumeako *Kronika* egunkariak eraman zituzten beste bi sari nagusiak. Era berean, Uribe-Kostako *Hiruka* eta Durangaldeko *Anboto* aldizkariak ere



aipamen bereziak jaso zituzten. Epaimahaia Tania Arriaga Azkaratek,

Edorta Arana Arrietak eta Amaia Pavon Arrizabalagak osatu zuten.

### 200 kilo gaztaina erre zituzten zapatuan Magosto jaiaren barruan

Su ondora batzeko eguraldia egin zuen zapatuan, kalean gora eta behera ibiltzekoa baino gehiago, baina jende dezente batu zen eguerdi aldera Maalara, danbolinen berora. Magosto Eguna izendatu zuen Galizia Etxeak zapatua, eta ohitura duten legez, gaztainak erre eta debalde banatu zituzten, Maalako parkean. 200 kilo gaztaina erre zituzten, antolatzaileen esanetan. Urteren bat edo bestetan, 2017. urtean esate baterako, bertan behera laga behar izan dute Magosto Eguna, gaztaina eskasiagatik, baina aurten, gaztaina urtea ari da izaten, eta ez dute tradizioa galdu nahi izan. Gaztaina errean ondoan, katiluak ere saldu zituzten bi euroan, Ribeiro ardoa dastatzera emateko. Eta herritarrek erantzun zuten.



Arg.: Aitor

### Diskoa argitaratu du Alberto Gonzalezen Muga musika taldeak

Xabier Montoiaren *Anfetamiña* (Susa, 1983) poema-liburari musika jartzeko sortutako proiektua da Muga. Musikari beteranoek osatzen dute, 6Nemen9, Aterkings, Cancer Moon, Los Clavos, El Inquilino Comunista, Gringo, Arana moduko taldeetan ibilitakoek, tartean Alberto Gonzalez elgoibartarrak. Egitasmoan J.A. Areta Goñi *Juxe* argazkilaria ere hartzen du parte. Taldearen lehen diskoak askotariko zortzi abesti batzen ditu: badira rock alternatiboko aleak, eragin velvetiarrak dituztenak, pop ukitukoak eta pasarte ambientalak. Era berean, Fermin Muguruzak ahotsa jarri dio liburuko poema ezagunenari: *Batzuentzat*. Poema horren historia David Bowiek ilea moztu zuen egunean hasi zela zioen Montoiak.



Arg.: Juxe



## Jantzi beltzak behar dituzte Aquariumean abenduan zabalduko duten erakusketa baterako

**M**aite Saltegrik (Eibar, 1963) eta Jone Urain (Mendaro, 1967) bikoa dira Pott Keramika eta abenduaren 12an, *Urdina?* izenburuko erakusketa zabalduko dute Donostiako Aquariumean, Mediterraneo itsasoko migratzaileen errealitatearen egungo egoeraz hausnartzera bultzatzeko. Instalazio hori sortzeko, baina, laguntza eskatu dute. Jantzi beltzak behar dituzte, eta arropak jasotzeko izendatu duten puntuetako bat Elgoibarren dago: Egur arte tailerra. Hasita daude arropak batzen eta azaroaren 25era arteko epea jarri dute horretarako. Erakusketa bera abenduaren 12an zabalduko dute Donostiako Aquariumean, Nautilus aretoan, eta urtarrilaren 21a arteko epea egongo da bisitatzeko.

### Elgoibarko taldea sortu dute Codesyntaxek garatutako Egunean Behin jokorako

Egunek aurrera egin ahala, gero eta erabiltzaile gehiago ditu Codesyntaxek garatutako Egunean Behin jokoa. Izenak dioen moduan, egunean behin partida bat jokatzeko aukera dute parte hartzaileek, eta euskaraz hamar galdera erantzun behar izaten dituzte. Ahalik eta erantzun gehien asmatu behar dira, eta ahalik eta azkarren. Asmatutako erantzun kopuruaren eta pasatako denboraren arabera, puntuak lortuko ditu parte hartzaileetako bakoitzak. Sailkapena astekoa da: astelehehenetik domekara arteko partidak hartzen dira kontuan. Egunean Behin aplikazioa Google Play edo App Store plataformetatik deskargatu ondoren, 14E3A7 kodea erabili behar da Elgoibarko taldera batzeko.

### Alfredo Monreal 'Monre' zenak egin zuen eskultura bakarra Meka Lanbide Eskolari oparitu dio haren sendiak.

Albitzuriko Meka ikastetxeiko atarian jarri dute Alfredo Monreal Monre zenaren eskultura. Alfredo Monreal (1932-2014) Gastetzen jaio zen eta 20 urte zituela etorri zen Elgoibarrera. Gabilondo enpresan aritu zen beharrean lehenengo eta Sigman ere jardun zen geroago, hariak eta bere enpresa sortzea erabaki zuen arte. Trenbide Kallean zabaldu zuen 30 metro koadroko tailerra. Ezagutu zutenek diote haren lanek beti izan zutela ukitu artistikoa. Gemma Monreal alabak dio, baina, euren aita ez zela sekula artista sentitu. Bilboko Guggenheim museora familian egindako irteeran aldatu zuen uste hori. "Han ikusi genituen eskultura modernoak egiteko gai zela esan zigun, eta Mekari eman diogun hau egin zuen, gaur arte neuk gorde dudana. Soldadura-lana izanda, bere lekua hemen zegoela pentsatu genuen".



### Jaiotzen lehiaketan parte hartzeko izena emateko epea, zabalik

Jaiotzen lehiaketa antolatu du aurtenera Elgoibarko San Bartolome parrokiak. Jaiotzak Jesusen jaiotza irudikatzen duten figuraz osatuta egon behar dira, eta nahi den materialean egin ahal izango dira, baina gehienez 75 X 40 zentimetrokoak izan behar dira. Elgoibarko familiek nahiz lagun-taldeek (gehienez hamar lagunekoak) parte hartu ahal izango dute, eta partaide bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du. Izena emateko [elgoibarkojaiotza@gmail.com](mailto:elgoibarkojaiotza@gmail.com) posta elektronikora idatzi behar da, abenduaren 5a baino lehen. Mezuari, parte hartzaileen izen-abizenak eta harremanetarako telefono zenbakia zehaztu behar dira. Lan guztiekin erakusketa osatuko dute gero, eta San Frantzisko kaleko 24. zenbakiko erakuslehoan jarriko dute ikusgai. Lanak urtarrilaren 7an jaso behar dira, 17:00etatik 18:00etara bitartean. Jasotzen ez direnak bota egingo dituzte.

### Familian idatzitako bigarren liburua argitaratu du Ander Errastik

Familian idatzi zuten *Herensugeen Itzulera* liburua Ander Errasti eta Sonia de La Maza senar-emazteek eta haien seme-alaba Jon eta Maitek, eta orain, bigarren atalerarekin datoz. *Herensugeen Itzulera Sataripeko Guda* jarri diote izenburua eta Durangoko azokan aurkeztuko dute abenduaren 8an (13:00), Xaguganbara aretoan. Salgai ere jarriko dute autoekoizleen mahaiari (Goenkale, 72). Testuak eta ilustrazioak familian egin dituzte, eta hiru hizkuntzatan eman dute argitara: euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez.

**LANA.....**

**Eskaerak**

Garbiketak egin eta arropa lisatzeko prest nago. Etxeko langile moduan ere bai.

☎ 648 063 061

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat.

☎ 665 528 409

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan eta gabez lan egiteko prest nago.

☎ 603 346 659

Umeak edo adinekoak zaintzeko, garbiketara lanak egiteko edo sukaldari laguntzaile lanetarako prest nago.

☎ 602 047 812

Adinekoak edo umeak zaindu edo garbiketara lanak egiteko prest nago.

☎ 632 228 545

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan.

☎ 632 992 730

Mutil arduratsua naiz eta lan bila nabil. Igeltseritzan edo erakuntza-lanetan lan egingo nuke, bai eta pintore ere. Adinekoak zaintzeko ere prest nago.

☎ 697 666 992

Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulua daukat.

☎ 683 415 222

Txofer lanetarako prest nago.

☎ 666 009 166

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan lan egiteko prest.

☎ 632 729 261

Adinekoak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest nago. Berehala hasteko prest.

☎ 602 850 826

Adinekoak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan ere bai.

☎ 632 329 213

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Ospitalean ere bai. Titulua eta esperientzia ditut.

☎ 671 989 434

Adinekoak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago.

☎ 612 422 256

Adinekoak zainduko nituzke. Titulua daukat.

☎ 685 724 861 / 943 748 899

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka, asteburuetan edo etxeko langile moduan.

☎ 632 229 972

Orduka egingo nuke lan. Esperientzia handia daukat adinekoak zaintzen eta garbiketara lanetan.

☎ 632 630 483

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile edo gabez egingo nuke lan. Garbiketara lanetan edo sukaldari laguntzaile moduan aritzeko ere prest nago.

☎ 603 346 659

**Eskaintzak**

Esperientzia duen zerbitzaria behar da asteburuetan lan egiteko.

☎ 659 539 861

**ETXEBIZITZAK.....**

Aukera paregabea! Etxea salgai Eibarren, San Juan kalean. 132m<sup>2</sup>. 4 logela, egongela, sukalde, bi komun. Dena kanpora begira, oso argitsua. 250.000 euro.

☎ 606 591 189

Aukera bikaina! Etxea salgai Zarautzen, hondartzatik gertu. Hiru logela, bi komun, egongela, sukalde, eta komunitateko terraza duxa eta bista zoragarriekin.

☎ 606 591 189

Etxea salgai San Frantzisko kalean (Maalan bertan). Bi logela, jangela, egongela, komuna eta ganbara. Egoera onean (altzariekin), oso argitsua eta berogailuarekin. 3. solairua. 75m<sup>2</sup>.

☎ 647 209 766



**LAGUNAK**  
colchonera textil hogar

Etorri eta bisita gaitzazu,  
kalitatezko ehunak  
topatuko dituzu!

**NEGUKO ETXeko ARROPEN BILDUMA BERRIA!**

Franela, koralina eta kotoizko maindireak,  
Sherpa ohe-estalkiak, umeentzako maindireak...

**QUALITY eta KOL nordikoetan**  
**%25eko deskontua lortuko duzu.**



**San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)**



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas  
Euzko Alkartasuneko Administrazioaren Erakundeak

**ERAIKINAREN FATXADA NAGUSIRA EMATEN DUEN TERRAZA DAUKAN ETXE BATEAN BIZI NAIZ, LEHEN SOLAIRUAN. ORAIN DELA ZENBAIT HILABETE PITZADURA BATZUK AGERTU ZIREN SABAIA, ETA EGUNETIK EGUNERA HANDITZEN ARI DIRA. EGOERA HAU KOMUNITATEKO PRESIDENTEARI ETA ZENBAIT ETXEBJEBERI JAKINARAZI NIE, ETA HONEN BERRI EMAN NION BAITA ERE KOMUNITATEAREN ASEGURU-ETXEARI. PITZADURA HORIEK KALEKO MUGIMENDUEN ERAGINEZ SORTUTAKOAK IZAN ZITEZKEELA JASO ZUEN PERITUAK BERE TXOSTENEAN. TERRAZA ETA BALKOIA NIRE JABETZAKOAK DIRENEZ ETA NIK BAKARRIK ERABILTZEN DITUDANEZ, KONPONKETAK NEUK EGIN BEHAR NITUELA JARTZEN ZUEN. JAKIN NAHI NUKE HORI ZUZENA DEN, ETA KONPONKETAK NIK EGITEN BADITUT, HILEROKO KUOTETATIK DESKONTATZERIK DAGOEN.**

Terrazak zalantza elementuak dira. Kode zibilak elementu komun bezala definitzen ditu, baina posible da baita ere eratze tituluari jasotzea etxe bakoitzaren elementu pribatu bezala. Aldi berean, terrazaren lurra beheko etxearen sabaia da eta, gainera, fatxada nagusiko parte, hortaz, definizio honek ez du eragozten elementu komun bezala izendatzea. Bestalde, obraren kostua hileroko kuotetatik deskontatzeari buruzko galderari erantzunez, nire ustez, hori ez da jokabide zuzena. Legearen arabera, komunitateko administrariari jakinarazi behar zaio konponketa hori egitearen premia, eta eskatu juntako gai ordenean sartzeko, etxebabeek euren iritzia eman dezaten.

**ONDORIOA: ZURE EGONEZINARI ERANTZUNEZ, ULERTZEN DUT KOMUNITATEAK HARTU BEHAR DUELA TERRAZAKO SABAIA KONPONTEKO OBRAREN ARDURA, KONPONKETA HORI EZ DELAKO ZURE ESKUDUNTZAKOIA.**



ROSA M<sup>a</sup>  
PINTADO

*Etxaldean Administrazio-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

660 969 679  
[rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)



**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
San Bartolome, 2



Argazkiak azaroaren 6rako, eguerdiko 12:00ak baino lehen ekarri behar dira  
BARRENeke bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) epostara bidali.




Zorionak, **Unax!**  
Gaur 7 urte bete dituzu, txapeldun! Muxu handi bat familiakoan, eta bereziki, Malenen partez.



Zorionak, **Leire!**  
8 urte! Muxu handi bat amama, aitaitia, Ane eta Sararen partez.



Zorionak, **Leire,**  
zure zortzigarren urtebetetzean. Nuria, Iñaki eta amaren partez.



Zorionak, **bikote!** Mundial pasatu genuen zuen egun handian! Gora ezkonberriak!

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

**PINTURA ETA DEKORAZIOA**  
**CORDON VILARCHAO**  
[cordonvilarchao@telefonica.net](mailto:cordonvilarchao@telefonica.net)  
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26  
**943 740 570 / 636 98 61 62**

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

**MEKANOSA**  
Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar



**OLAIA MARTINEZ**  
ESTETIKA ZENTROA



Trenbide kalea, 21, behea, ezkerre. **943 242 805**

**%10eko deskontua**  
**txartel hau ekarrita urte bukaera arte**

**Urte bat zuekin! Eskerrik asko!**

## 22 BARIKUA

**8:30** Santa Zezilia Eguna. Ikastolako ikasleen kalejira. Kalegoen Plazatik Ikastolaraino.

**21:30** Mendi Film festibaleko filmak, Morkaikoren Udazkeneko Emanaldien barruan. Herriko Antzokian.

## 23 ZAPATUA

**19:00** Bandako hildako kideen aldeko meza. San Bartolome parrokan.

## 24 DOMEKA

**12:30** Udal Musika Bandaren Santa Zeziliako kontzertu berezia. Herriko Antzokian. Zuzendaria: Gorka Mujika Urain.

1. *Música y poble* (Ferrer Ferran)
2. *Overhauled music* (Gines Carrion). Bonbardino eta tuba kontzertua. Bakar-lariak: David Abellan eta Jose Miguel Rochina.
3. *Third symphony* (James Barnes). III. eta IV. mugimenduak.

## 26 MARTITZENA

**18:00** Literatura tailerra: Virginia Woolfen *Mrs Dalloway* liburua landuko dute Consuelo Carrererekin. Udal Liburutegian. Antolatzailea: Haizea.

## 28 EGUENA

**10:00-13:00** Bidezko merkataritzaren postua. Merkatu Plaza aurrean.

**19:00** Isiltasun eskolaren meditazio topaketa eta jardunaldia, Jose Cruz Igar-tuarekin. Kultur Etxeko sotoan.

**21:00** Mendi emanaldia: *Shipton Spire, Karakorume*ko sugarra. Ekaitz Maizek aurkeztuko du, Musika Eskolako auditoriumean. Antolatzailea: Morkaiko.

## 29 BARIKUA

**10:00-14:00** Bidezko merkataritzaren postua. Merkatu Plaza aurrean.

**20:30** Antzerkia: *La casa de la llave*. Tantaka teatroak taularatuko du, Herriko Antzokian.

## JUBILATU ETA PENTSIODUNEN ASTEA

### 25 ASTELEHENA

**18:00** Gabonetako otarren zozketa.

### 26 MARTITZENA

**17:30** Zine foruma. Jubilatuen Biltokian.

### 27 EGUAZTENA

**14:00** 80 urtetik gorakoen bazkaria eta urrezko ezteiak bete dituzten bikoteei omenaldia.

### 28 EGUENA

**18:00** Txokolatada.

### 29 BARIKUA

**10:00** Mufomi fosil eta mineralen museora bisita gidatua Javier Vargasekin. Ar-tetxen.

### 30 ZAPATUA

**10:00** Ibilaldi geologikoa Deba ibaia-

ren inguruan. Inma Mugertzarekin. Andikanon hasita.

**17:00** Sorpresa.

### 1 DOMEKA

**11:30** Hildako jubilatuen aldeko meza. San Bartolome parrokan.

**18:00-21:00** Dantzaldia, Eguren orkestrarekin. Jubilatuen Biltokian.

## EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO EGUNA

### 22 BARIKUA

**21:30** Bideo foruma: 'Atacada: la teoría del dolor'. Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunaren harira. Haizeak antolatuta, Lorei Salegik emango du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

### 23 ZAPATUA

**09:00** Emakumeentzako autodefentsa tailerra. 14 urtetik gorakoentzako, doan. Olaizaga Kiroldegian.

### 25 ASTELEHENA

**19:30** Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguneko elkarretaratzea. Kalegoen plazan.

### 27 EGUAZTENA

**19:00** Helduentzako ipuin kontalaria: *Para comerte mejor*. Ines Bengoarekin. Udal Liburutegian.

### 30 ZAPATUA

**20:00** Antzerkia: *Las chirilas*. Kultur Etxeko sotoan (gatzelaniaz). Antolatzailea: Haizea.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)			
22 BARIKUA	23 ZAPATUA	24 DOMEKA	25 ASTELEHENA	26 MARTITZENA	27 EGUAZTENA	28 EGUENA	29 BARIKUA
Egunez <b>*Ibañez</b>	Egunez <b>Garitaonandia</b>	Egunez <b>Garitaonandia</b>	Egunez <b>Arriola</b> (Lehen, Etxeberria)	Egunez <b>Fernandez</b>	Egunez <b>Yudego</b>	Egunez <b>*Oruesagasti</b>	Egunez <b>Barrenetxea</b>
Iluntzean <b>Yudego</b>	Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Arriola</b> (Lehen, Etxeberria)	Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Yudego</b>	Iluntzean <b>Arriola</b> (Lehen, Etxeberria)	Iluntzean <b>Barrenetxea</b>

**\* Fernandez:**  
Herriko enparantza 4,  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

**\* Ibañez:**  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

**\* Oruesagasti:**  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guztian, gauz: 22:00-09:00**  
Zulueta. San Agustin kalea, 5 (Eibar)  
943 820 498

Zinea (Herriko Antzokian)



'Retrato de una mujer en llamas'

22 barikua: 21:30  
23 zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)  
24 domeka: 19:00  
25 astelehena: 21:30



'Misión Katmandú'

24 domeka: 16:30



'Parásitos'  
(Ongarri zinekluba)

28 eguena: 21:30

**Ekonomia Ituna**  
*zerikusi handia... nirekin!*

Eta euskal herritar guztiekin; izan ere, haren bidez, erantzukizunez, zorrotasunez eta sentsibilitatez kudea ditzakegu-eta euskal baliabide eta zerbitzu publikoak.

*Euskadi, nuzolana, bien conio*

RISKO JAURKARITZA  
OSASUN ETA ERKORTASUN  
SAILA

GOBIERNO VASCO  
DEPARTAMENTO DE HACIENDA  
Y ECONOMIA



Eire Vila



## Jone Olaizola



A hobizarrak. Arto-bizar. Urregorritzko bizarra. Bizarzuri. Bizar hitzarekin osatutako hainbat hitz polit. Bizarzuriri tiraka, Olentzero eta Mari Domingi hilabete barru etorriko zaizkigu bisitan. Argazkikoa baliteke bera izatea, Gabon gauerako apaintzen. Izan ere, ez naiz harrituko aurtengo Bilboko kabalgatan, ez bizarrak ez triparik ez duen, eta erretzaile ohia nahiz zurrutero ohia den gizona agertuko balitz, Olentzero birgaitua, sakelakotik whatsappak bidaltzen. Dena den, asmakizunik handiena ez zen Olentzero gizontzea izan, enbor zatia zena gizontzea baizik. Bai, gogora dezagun berez

ez ziola pertsona bati erreferentzia egiten, ez zuela generorik, alegia. Esan bezala, enbor zati bat zen, sutan erretzen zena; neguko iluntasunari aurre egiteko sinbolo gisa, besteak beste. Olentzero ez da gizona, beraz; eta, noski, bikotekide emakumea edukitzea, surrealista samarra da. Oso indartsua da sortu dugun irudia, eta, azken finean, nahita edo nahi gabe, familia mota hori bihurtzen dugu eredugarri. Batek udaletxeko balkoitik "Erregeak gurasoak dira" esan zuen bezala, niri ere esateko gogoia sartu zait "Olentzero ez da gizona". Baina, tira, madarikatuko naute hori egiten badut. Kontuak kontu, ongi etorri neguari: argia, berotasuna eta janaria ez daigun falta. Gainerakoak, dagoeneko betekada ematen dit.

*"Gogora dezagun Olentzerok ez ziola pertsona bati erreferentzia egiten, ez zuela generorik"*

## BOSCH TAS1402 VIVY 2 KAFEGAILUA



**Lehen: 38 €**  
**Orain: 22 €**

Edari gustukuena kortuko duzu,  
botoi bakar bat zapaltze hutsarekin.  
Taminaz, txikia, baina gustu handikoa!  
Bere taminu bakari esker, espazioa irabaziko duzu!

## BOSCH BCHF220B XURGAGAILUA

Bi batean:  
eskuko xurgagailua eta xurgagailu bertikala.

**Lehen: 129 €**  
**Orain: 99 €**

Mota guztietako lurren garbiketa sakona.  
Boltsarik gabeko teknologia eraginkorra.  
Selfstand funtzioa: gordetzeko eta  
kargatzeko erabilerraza, praktikoa.  
Aire ziklonikoko fluxu-sistema. 20v.



# MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

**BLACK Friday**

Denakiko prezioak. Produktuak agortu arte.

## Gremioen gida



## GREMIOEN GIDA

Gidan agertzearen onurak!

**21€**  
hilean

21 €ren truke, hileroko,  
zure enpresaren datuak  
eta irudia erakutsiko ditugu  
BARREN astekarian.

**12**  
aldiz urtean

BARREN astekaria da  
Elgoibar eta Mendaron  
erakusle-irudi ikusiena.

**4.885**  
ale astero

4.885 ale banatzen ditugu  
Elgoibarren eta Mendaron  
DOAN.

Eman bultzada euskarari  
eta lagundu gure  
proiektua finantzatzen.



# “Batzen gaituen esentziak izan dezala presentzia” lemapean kaleratu du Danobatgroup-ek euskararen eguneko lehiaketa

**Basque Culinary Center-en eskutik 360°ko esperientzia gastronomikoa irabazteko aukera aparta, Euskararen Nazioarteko Egunaren harira Danobatgroup kooperatiba taldeak enpresak dituen herrietara zabaldutako lehiaketan parte hartuta.**

**D**anobatgroup industri taldea makina-erreminten fabrikazioan, balio erantsi handiko osagaien fabrikaziorako garapenetan, giltza eskura erako ekoizpen sistemetan eta zerbitzu teknologikoki aurreratuetan espezializatuta dago, eta Danobatgroup kooperatibaz gain Danobat, Goiti, Soralue, Goimek, Latz eta Ideko kooperatibek osatzen dute taldea.

Taldeko enpresak kokatuta dauden ingurune soziolinguistikoari begiraturaz eta kooperatiben izateko era eta konpromisoari jarraituz, lemak dioen moduan euskara da batzen gaituen esentzia hori eta euskarak arlo guztietan presentzia izateari ematen ari zaio garrantzia azken urteetan. Presentzia eguneroko lanean, teknologia berrietan, elkarren arteko harremanetan, ikerketa eta garapenean...

Baina egunerokotasunetik haratago gizarteari ere euskararekiko duen konpromisoaren berri eman nahi zaio Danobatgroupetik eta presentzia izatera bideratu batzen gaituen hori.

Danobatgroup-ek harreman sare zabala du eta bezeroekin sarri ingelesez baliatu behar izaten bada ere, bertako langile, hornitzaile, bezero, ikastetxe, administrazio eta abarrekin eus-

kara erabiltzeko konpromiso sendoa du, eta horren adierazgarririk dira taldeko kooperatiba guztietan euskararen erabilera bul-tzatzeke dituen planak, lortutako eta lortzeko bidean dauden Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriak.

Aurten, aurreko urteetako bideari jarraipena emanez esan bezala, Danobatgroup-ek lantegiak dituen herrietako herritar guztiengana iritsi nahiko luke taldeko euskararekiko konpromisoa ezagutzera emanez euskararen eguneko hurrengo lehiaketaren bidez.

Lehiaketan parte hartzeko ondorengo helbidean sartu behar da: <https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2019.html>

Galderei erantzuteko Danobatgroup-ek eguneroko lanean erabilienak dituen hitz teknikoak osatutako hiztegi hainbat kontsulta egin beharko dira honako esteka honetan: <https://www.danobatgroup.com/euleuskara> eta hiztegi sartzeko hitz berriren bat proposatu.

**Abenduaren 3ra arteko epea** izango da lehiaketan parte hartzeko, eta parte hartzaile guztien artean Basque Culinary Center-en eskutik bi lagunentzako 360°ko esperientzia gastronomikoa izateko aukera zozkatuko da.

*“Egunerokotasunetik haratago gizarteari ere euskararekiko duen konpromisoaren berri eman nahi zaio Danobatgroupetik”*



**DANOBATGROUP**

**HARTU PARTE DANOBATGROUPEN EUSKARAREN EGUNEKO LEHIAKETAN!**

Sartu lehiaketako estekan, ezagutu euskara arloko gure ekimenak eta irabazi bi lagunentzako 360°ko esperientzia gastronomikoa Basque Culinary Center-en eskutik.



<https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2019.html>

\*Parte hartzeke adierazteko eguna: 2019ko abenduak 2, 00:00

**Batzen gaituen esentziak izan dezala presentzia**

DANOBATGROUP KOOP. E. | DANOBAT KOOP. E. | GOIMEK KOOP. E. | GOITI KOOP. E. | IDEKO KOOP. E. | LATZ KOOP. E. | SORALUCE KOOP. E.